

1936ko
GERRATEA
ERMUAN
ETA
MALLABIAN

“Drogetenitturri”
herri aldizkarian
argitaratutako
artikuloak.


2006ko azarotik - 2007ko apirilera

Gerra ostia, gerratia bera baiño gordiñaua

A skori entzun jako hori esaten; baitxa gerratia hasi eta amaitxu ein zala, baiña haren ondori-xuak urtietara be pasau eziñik euazela. Hamen baiño hobeto inunbez, gerriaren gaiñian asko dakixan Jesus Gutierrez eibartarrari entzundakua: ez zala irabazle eta galtzaillien guda bat izan, modu batera edo bestera danak galtzaille suertau ziralako.

Lagunartekuak apurtuta

"Detaile bat esangotsut: nekazen lagunak karlistak eta nazionalistak. Gorrixen denporan, gorrixen denporia errepublika sasoiari esaten geuntson, ba danok alkarrekin genbizen. Baiña sartu zianian nazionalak, harek lagunak nerekin ebi-zenak tratatziari laga ta se-parau ein gintzazen. 'Bost falta jakuz, bost!' esate oskuen, gerran hil zitxuen bost karlistak zirala ta. Ta guk ez genkan kulparik, barren! Euazen Bilbon karzelan sartuta 4 ermuar; asturianuak asaltau ein eben karzeliari benganza moduan ta bertan euazen ermuarrak be hil. Gudarixak jua zian laguntzera, baiña alperrik. Harek asturianuak bildurgarrixak zian, gogorrak. Beitzizu zelakua zan Ermua: Batzokixa geuria zana eurak, karlistak hartu eben ta ipintze eben: "No se admiten avals, se admiten de-



Pasialekuan eindako refugixuari Ignacio Urretak etaratako argazkixa.

nuncias". Gogorra, eh! Abalak ziran kartzeletatik senidiak etartzeko edo dana dalakorako permisua eskatzeko. Gogorra!".

Atzerrirako pasaportia eskuetan

"Ebakuaziñuan jua zian Bilbo aldera ta gero Bilboko zinturoi hori, Bilbo apurtu zianian, aitzak esate eban Karranzaraino ailegau ziala. Han Santanderrekin muga dago ta esate eban hantxe euala Jose Antonio Agirre lehendakarixa be, daneri pasaportiak emoten: 'Juan Santanderrera ta hantxe dagoz barkuak; nahi do-zenak atzerrira jua'. Nire aitzari be emon zotsala atzerrirako pasaportia ta haxe eskuetan ebala, txapela kendu, zutunik ipiñi ta

Bizkaixan hanka bat ta bestia Santanderren jarritxa bota ebala haxe bertsuau ta makiñatxo txalo entzun ebala:

'Jauna, Jauna. Hau da egoera bildurgarrixa!

Euzkadiko mendi guztiak odolez beteta gelditzen dira.

Zenbat ama semerik gabe ta zenbat alargun.

Jauna, Jauna. Bagoiaz gu hamendik, Euskal Herrixik ihesi

eta zure eskuetan lagatzen dogu Euskal Herrixa, Jauna'.

Horixe esan ta urten ebela. Hori akordatze jatan guztian, negarra etortzen jata. Harrazkeriok, zenbat urte pasau dian ta ondiñok burrukan gaoz

Euskal Herrixan".

Txapel gorrixek

"Gero atzetik etorri zan, barritz, honek zerok hau txapel gorri jentie. Mekauen la puta! Horrek ze aparatu moduk, danok hiltteko be ez eben asko falta, gero! Berotu jakuen ta euren esate ebena egixe, bestiena guzurre... Harrotute txapel gorrixekin ta geu lakoxe baserritar batzuk izan. Horrek agertu zien agertzeko txorixek! Redio!".

Burdiñarteko kolegi-xuan eindakua

"Itxurri onduan eixeuan gure lagun bat bolso edar batekin ta hurreratu jakozan bere lehengosiña bi, karlista-karlistak: 'Ai, hori don bolso zoragarrixa dakan. Alabaren batek bialdu-

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA

EGANA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEIJOAGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

ALBOKA

MUSIKA
ESKOLA

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Tikitrixia
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

konan, ezton?'. 'Ezzzz, hau bolsauu zeuek pagautako kolegixuan einda jakanat'. Gerra denporan, karzelan einda berak. 'Geuk pagatzen dotsuegunian zuei kolegixua, orduantxe ikasiko dozue eitzen'. Baiña ez zan aillegau harek pagatzera!"

Garixe entregau biharra

"Jateko sobraik ez euen, baiña faltaik bez bihar dan moduen ebillenak. Hemen garixe, haxe estu xamar ibiltzen zan, ze eruen eitten eben asko. Guk garixe entregau biharra eukitzen gendun; berrehun entregau biharreko lekun, laurehun entregau erain ta estraper-

luen gero ibiltze eben euren, salduaz. Trabakure, iñoz Ermure be erun dot. Han egoten zien pare bat gizon, sakuek kargau ta. Na erun ipiñitte eukiko zittuezen puntuek, errota haundi-xeta. Gero ohosten zittuezenak, almazenen bata edo. Hamaika txarri gerratin aberastu zan!"

Alkatiak itxi ez ulia ebaten

"Herri batzuetan eiñ eben andra batzuk kalbo laga, Emakume Abertzaleko Batzokuak dan-danak. Ridikulu-luan ipintzeko, ulia ebagi al rape ta aceite de ricino emon ta kalietan erabilli eitzen zitxuen. Enterau gin-

tzazen ni be listan neuala horixe eitxeko. Baiña Bernardo Garate, 'Cantabria' alkate sartu zanian esan eban: 'Hará, iñori etxako ulerik ebagiko; trankil, hori ez da eingo!'. Ta halantxek izan be; 'Cantabria' ondo-ondo portau zan, zintzo jokatuan eban".

Maistriak baekixan

"Eskolan maistriak esate oskun: 'Cuando los rojos quemaron Guernica...' Ta Gernika erre ebenian, hamendik martxa einda, Ermuko mordua suertau giñan hango inguruetan ta bagenkixan halan ez zala izan. Behin danok urten genduan esaten: '¡Eso no es ver-

dad!'. Eta maistriorrek: ¡Pues teneis que decir eso!'. Eta guk: 'Señorita, justed nos obliga a mentir!'. Gero jakin genduan maistriak esaten ebala: '¡Cómo se me ponen! ¡Y tienen razón! Si alguno hasta tiene al padre en la cárcel, pero qué quereis que haga si me obligan'. Behintzat konturatzen zan ta ez da gitxi".

Hamentxe amaitutzat emoten dogu, 1936ko gerratiaren testigantza eta bizikizun bildumatxo hau. Zazpi aletan (frentia gure inguruko mendixetan beste hilla-betez) gerratia kontatzeko bizirik geratu zirenen oroimen historikuan sartzeko beta izan dogu. Bakoitzak gogoratzen dabene modura kontauaz eta bestienetik haren baten desberdin; horretxek emoten dotsielako honek ahozko historia zatitxu honek neurteziñeko aberastasan eta balixua.

Estibalitz González



Apirilaren 26xan Ureta basarritxik alde egin ostian. Pelikulen No-doean luzeruan jardun eben erakusten erretratu hau.

Zuzenketa. Apirilko aleko, 23. orriko argazki-oïña haxe zan: Ermuan suntsitutako blindatua. SERGA "Historia Militar del s. XX" aldizkariak argitaratua, Alcalako Archivo Gral. de la Administración-en dagoen argazki baten kopia.

Harategia



M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak

GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA

Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

OPTICA J. CASADO



Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA


MIGUEL Harategia



TXORIZOAK
ODOLOSTEAK

Probaleku, 3
☎ 17 05 63
ERMUA
(Bizkaia)

hamburguesería TITANIK



*Pintxo dastaketa
poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

"Gerra probatzen dabena, ez dau barriro eskatuko!"

1936 70 urte ez dira nahi-kua izan, zoritxarreko gerrate haren gogorapenak, bizi-ebenen akordutik ahaztu eragitzeko. Hurrengo datozenak izenik bako testigantzak dira, iñonak eta dane-nak izan leikezenak. Sarritxan begixetan malkua dabela, berba eñ dabe "gazi-tiok jakin biozelako zer pasau zan, barriro holakorik ekarri ez deizuen!".

Firma billa

"Gure aman anai bat batalloi bateko mandamasa zan eta Naparruko frentien desaparezidu zan; bere gorpurik ez zanez agertu, lagun-ek esandakuagaittik, hortxe Urbasako barranku horretan goititik-behera bota eben sospetxie eken amak eta. Desertautzat emon eben ta etorri zien goarribillek tranba! tranba! tranba! eta, soluen biherrien euazela hartu aittitte, tio ta tia ta kartzela eruen zittuen, gero hiltteko kontuaz. Amak guri-ek zeozer ein bizala ta salbau nahi zittun, ze emoten bosten sententzixe, bistobuenue, Bilbora afusilletako eruteko zien. Ama gurie Bilbora jan zan pregun-



1937-03-21. Ibaizabal batallioa, Iñaki San Miguel konpainia. Elgetako frentea Ermuan.

teta zer ein leixen eta aittittan abogau ezagun batek esa otsen firmak batzeko, zemat eta firma gehixa batu, hoba. Illuntzixen gober-nau moduko bat eñ umiei, amuman ta aittan konture itxi danak ta berak urten. Gabaz ibiltzen zan, baser-rriz-baserri, danien firmak eta firmak batzen. Hak ez eban besterik; ibilli tte ibilli ta mesedez bati ta mese-dez bestiai, ta negar batai, negar bestiai ta pagau bihar bazan pagau. Foliuek eta fo-

liuek batu zittun. Bixen bi-ttartien baiña, Bilbora eruen zittuezen hiltzera; ikusi ebenien hainbeste fir-ma, goixeko hiruretan solte itxi zittuen Bilbon. Ha dana izan zan tiok eskapau ebala pentsatzen ebelako."

Bonben nundik norakuak

"Gerria etorri zanian ipi-ñi eben bat txapliuak botatzeko abioia ikusten zan momentuan, guk hanka e-itxeko nononora. Behin akordatze jata, bota zitxuen txapliuak eta euan han arkitekto bat eta esa oskun: 'onena zera, elixako kanpatorria, elixako kanpa-torrian azpizan gelditxu.' Kasualdadia izan zan han-

dik ehun metrora jausi zala bonba bat, Izelaietan, ze esangotsut Arin, Eugenio Kajeruanekua ta bizi zian lekuan, baiña palazio alde-rutz. Brooom! Kanpatorrian gengoan gu eta etorri jakun bokanada bat esate moduan, ke bat bonbiana ta hantxe eñ eban eiban aberixia. Kristalak apurtu-ko zitxuan bakarrik harek, ez zan bonba haundixa.

Beste bonba bat jausi zan, ointxe eitxen dihardue ba horrek etxiok Abeletxe azpi-xan; Antonatxanekuak eken terreno bat hor ta sagasti bat. Neure lagun bi euazen hortxe eta ama ta bixok goiazela esan geuntsen 'zuek nora zoiazie?' ta 'gu, Abeletxerutz!' eta harei pa-

"Trenbidia apurtu guran ebizen, bonba mordo bat bota eta ez eben azertau"

KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

San Peláio 8C, beheak
48260 Ermua
943 17 47 44

sau jakuen zerera, jausi arboletara bonbia eta lurrak tapau kasik ei ebala bata! Ikusi nitxuan ta 'zer?' ta berbaik pez; hartu eben sustuakin ez ekixen nun ebizen bez. Kaltxangon bat eridu eiñ eban; bonba burdiña edo zati batek, metrailliak Kaltxangon atrapau eban, eh! Pentsaizu nundik, Abeletxe azpitxik Kaltxangora ze distantzia dauan...!

Hamendik ekin Okinzuritxik Drogeten itxurrixa baiño honutzatxuao, kable bat euan Urkora eta Urkon kañoi txikixak. Kablera bota eben bonba bat gerria amaitze inguruan. Harra-pau zitxuan nere andria eta, aman etxera zoiazela Berano Txikira. Sustauta ezkutau zian, hantxe nunun. Beste bonba bat jausi jakuen orduantxe Urko alderutz; harek nahi eben botatzia kañoiei. Urko puntan euazen kañoiekin eitxe eben tirakatu Kalamuara. Handik igotze eban katxarro batek eta eurak juaten zian katxarruan Urkoraino; kapazo moduko bat zan, teleferiko bat. Igon eurak, zikiñak bajatu...ta haretxei bota otsen.

Azkenego orduan, Errotabarri apurtu eben; Errotabarri harrapau eban zegaitxik ze hametik eta handik trenbidia euan. Bertako baserritxarra kortan euala hil zan. Ebizen trenbidia apurtu guran; bota zitxuezen bonba mordo bat ta ez eben azertau trenbiderik, harrapau eben errota ta dana apurtuta geratu zan. Azken egunetan apurtu zitxuezen horrek gauzok."



Errotabarri 1937ko apirilaren 25ian, hegazkiñek bonbardeauta. Gaur parkia da.

Armeru retaguardian

"Nere gizona deteniduta eruen eben, aitxa be bai. Porque nere gizona zera zan, orduan gudarixak egon zian, gudarixak mendixan egon zian. Nere gizona ta beste hiru edo lau ermukuak batalloian, "Batalloi Mungia" zan, han egon zian armeru. Armeru zan harek gudar, trintxeretan eta aurrian ebizenak, harek ekezen eskopetak ero aberixatzen bazian haretxek arreglatzia. Haretxek arreglatzen retaguardian egoten ziran behian eta nere gizona hori izan zan."

Oillo prikitzen

"Milizianuek Kalamuatik mendiz-mendi etortzen zian hona, brausta! brausta! Sutarra sartzen zien; bota orixuok, eta oilluok eta autuok prikitzen zittuezen. Oilluek ra ra ra! hil eta jota narrutu, lumatzeko asti barik; emon

buelta bat suten eta jaten zittuezen. Behin ekarri eben oillasku bat nunun hartute, 'hauxe oillaskuau emongotsut eztakitt zegaittik' esanda. Oillasko zurixe, gangar gorridune zan. Gurien itxi eben eta hari esaten jakon 'Milizianue'. Bestien aldran hazi zan ta eztakitt amak saldu edo etxien jan bazan. Iguel Eibarren 'Txaltxanien' merixendaeko eban baten batek!."

'Ibaizabal Batalloia'

"Zazpi hillabetian egon zan Ermuan 'Batallón Ibaizabal'. Durangaldeko eta Arratixa aldekuak zian gehixengua. Frentiak euazenez Kalamuan eta Intxortan (Elgetan), honek zian 'fuerzas de choque' eta esturasunik baeuan, dzu! juaten zian. 700 bat lagun zian eta Ermuko eta Mallabiko etxe ta basarrixetan euazen sartuta. Euren zentrua gero Bal-

despina Palazixua zan eta Elixan jaten emoten zotsien. Entrenamenduak Mallabia edo Elgeta aldera juanda eitxen zitxuen eta Elgetara juaten ziranian, juan-etorrixa egunian eitxe eben. Aidian ibiltzen zian; ordena hartzen ebenian, dzu!, antxitxiketan urten bihar izate eben."

Kontrarixua zain

"Solluben egonda nao ni, ballasta bat eskuan hartuta, kontrarixuan abioiak goixan ta norbera zulua topau ezin han ta enemigua aurrekaldian, hontara zain urtetzen bok, eh! Ha bizimodua ha, eh! Gerria hamen esaten dabena gitxiei esaten dabe, gitxiei! Hori probatzen dabena ez dau barriro eskatuko, horrek! Han eztao 'jay, no estoy bien, quiero ir a casa!' Eeeeh! O vida o muerte, adelante!"

Estibalitz González

ARTARRAI

OPARI DENDA



Goienkale, 5 • Telf. 943 17 44 19
ERMUA




Gerratia berbetan

1936 Gerriak dau! Haren testigu izan ziran askori, akordura ekartze hutsak, kalte eitxen dotsie. Gogotik kendu eziñeko modukuak izan ziran harek bizi eragindakuak.

Esne botillak lakoxiak

"Milizianuak, nazionalak hartu ebenian hau hamen ebakuaziñua egon zan. Gu Gernikara juan giñan eta alilegau giñan egunian Gernika erre eben. Dana ikusi genduan Gernika erretzen. Bidian harrapau giñuen gu, Gernikatik zerera, Elantxobera kamio baten goiazela. Abioiak agertu zian ta ekin otsen, honek esne plastikozko botillak badaoz ba, botilla zurixak... halakotxiak zian bonbak. Dzi-dzu! Dzi-dzu! botatzen zitxuen abioia zoian leku guztietan eta harek behia jote ebela, brul ke baltz batekin garra etaratzen eben ta hantxe erre zian danak. Ha dana akantarilla baten pasau genduan guk ha dana, barruan sartuta. Gero Ermura etorri giñanian, deitxu eñ oskuen aiuntamentura eta esan oskuen aber guk ikusi genduan



© Sabino Arana Fundazioa

1937-03-21. Ibaizabal batailloiaren retaguardia. Valdespina jauregixaren balkoietako baten.

Gernika erretzen: '¿y quienes quemaron Guernica?' preguntau oskuen. 'Pues los alemanes, los nacionales, porque nosotros estábamos en la carretera y veíamos'. Batek esan zostan: 'Zu! Zuk ezin zeinke hori esan!'. 'Zeaitxik eztot ba esango neuk ikusi doten gauza bat. Guzu-

rrik ezin leike esan eta egi-xa esaten dotsut'. 'Ba ezi-zu ba esan' esan zostan 'txarto ibilliko zara ta'. 'Ba nik ezin neike kontrarik esan, nahi txa txarto ibilli, millagroz salbau giñan ta'. 'Ba eztozu esan bihar, hoba dozu ixillik egotia' esan ostan. 'Ba niri preguntatzen boste... ni ez noia hori esaten bateri txa bestiari, baiña neri pregunta-tzen boste zer izan zan egi-xa esan biot'.

etorri gintzazen tiroka, dudia ba, pixkanaka-pixkanaka frenteik-frente Urkiolaraino eta bertan naua, tiro batek hankan heridu niñuen eta hankioi dana zatitxuta laga ostan. Min itzela senti-du neban eta odola gero...! Kanal moduko bat euan einda ta bertan sartu nintzan. Alde bixetakuak alkarri bonbak botatzen ziharduen ta nire buru gaiñetik pasatzen ikusten nitxuan. Jota, bata jo ta hil eta bestia be bai eta norbera bizirik! Etzun lurrian, hildako bat hartu, ipiñi gaiñian eta haren gor-

Gorpupian
"Bitxorixatik oiñazian

"Urkiolan frentian nenguala tiro batek hankan heridu niñuen"



EKINTEA

ESKOLAKO MATERIALEA.....

KOPIAK KOLOREZ.....

FAX PUBLIKOA.....

• Goienkale, z/g
• Tlf. 17 20 08

Antonio Balsera

- Pintore
- Paperestatzaile
- Errotulista

Zerukoa 1, 6-6 esk.

943 17 35 25

ERMUA

"Egunaz zelan bonbardeuak egoten ziran, gabaz ein bihar biharra"

pua norberan gainian bada-
ezpadank... Batalloiko lagna
zan. Bildurgarrixa izan
zan; sustauta egon arren,
tragau. Han ez euan beste-
rik! Edarra da hori ikasteko
eta errezatzeko.

Bestekaldekuak hartu
eben ha eta gero behera
eruan gainuezen, prisionero.
Ez gainuezen ondo tratau,
normala dan moduan; jo ta
ez, baiña insulto gogorrek
botatzen zitxuezen. Basur-
toko ospitalian preso euki
gainuezen, harik eta Bilbo
hartu eben arte. Bilboko
zintxoroi hori apurtu za-
nian, orduntxe liberaziñua
eta orduntxe etxera. Han-
kiak lata haundixa emon
zostan, osatu arte beti min;
urtiekin gogortu ein zan,
baiña hor eztao juegorik ta
bizi guztirako geratu nin-
tzan erren".

Basarrixak, ezkutaleku

"Gure baserrixen jende
asko egon zan ezkutaute, Ei-
bartik eta famelixia osuek
etorten zien. Hamen esnie,
artue, inddarrak eta ogixe
eken eta amumanien gero
talue egoten zan. Aidien
buelta einda etaratzen zi-
ttun, bera plantau hantxe
suan ondun ta negro ei-
tten".

Umien poza

"Soka-saltuan hamentxe

plazan, bai ta gerriak urten
dabela. 'Ze pasau bidau?'
ta 'Ama, gerriak urten dau
ta eskolarik ezin egon'. Ta
pozik! Zelako inñuzentia,
eh! Enee, gero negarrez, ze
anai nausiñak hartu zitxuen
gudarixak ta graziak lehen-
gosua ekela kapitan guda-
ri-xena ta haren onduan ondo
ebizan ta zera, bata asimi-
llero ibilli zan astuakin eta
jeneruakin".

Gaba, biharrerako

"Hamalau urte nekazen
nik gerriak urten ebanian ta
hamalau urtekin 'Leone-
nian' sartu nintzan biha-
rrian, militarizauta. Buzua
emote oskuen, brazalet
batekin, militarizauta gen-
gozala aitzen emoteko. Ge-
rrara jua bihar bagendu,
esate eben ez gaitxuela
erungo: 'militarizado', tai-
llarrian geratu. Hiru urtian
ez zosten deitxu neri. Biha-
rra eitxen genduan illuntzi-
ko zortziretatik goixeko sei-
rak arte, egunez ez. Egunaz
hartu bai manta bat eta ni
juaten nintzan Pagorbera
kanposantua dauan lekura,
Ongarai basarrixan ardi-txa-
bolara, lo-eitxera. Gabaz ei-
txen genduan biharra, ze
egunaz ez euan argi-inda-
rrik. Gero motorrak ipiñi
genduzan zera, indarra
emoteko. Egunaz zelan bon-
bardeuak egoten zian, ba
gabaz ein bihar biharra".



1940. Gerran jausitxakuen oroigarrixa. Atzian Elexoste eta Mendiola etxiak

Famelixia zatitxuta

"Neretako errekuerdorik
garratzena gerra denpore-
tia eta Ermuko ebakuazi-
ña da: gudarixak danak
heriduta kalietan, ume bi-
kin ni, gizona gerran...
Ama ta ahizta bat, 25 urte-
ko ahizta bat hil jakun; hor
Arraten bota eben bonba
bat euren onduan ta atake
bat emon otsan ta hil ein
zan nere ahiztia. Bonbiak
ez eban hil, atakia emon
otsan esturasunakin. Or-
duantxe pasau genduzan
gogorrenak".

Inñoren kontra ez, norberan alde

"Nik sekula be ez dot es-
ten bestekaldekuak 'gor-
xak' zianik, kontrarixu
ziala bai orduan momentu
Bestekaldian zein dauan
tozu pentsatzen; bateron
ten alde jokatzia baiña, n-
beran defensia ta bizirik
tetia da hango gauzia. Pol-
karik ez genkan guk, gazi-
gain. Eta gero ezagut-
dozun baten bat edo lagun
bat kartzelan edo hilda da-
la jakitzeran, derrigor sei-
du bihar".

Estibalitz Gonzalo


DERMOESTETIKA ZENTRO INTEGRALA

PILAR

ESTETIKA MIXTO ESPEZIALIZATUA
CIROMASAJEA, MEDIKUNTZA HOMEOPATIKOA

ZUBIAURRE 24, 1. ESK.

943 17 30 66



GURE AMETSA

Gure dantzak Zure dantzak

Gureametsataldea@hotmail.com

Trentaisesko gerria: pertsona bakotxeko, bizipen bat

Irakurtzen gaitxuzuela, sarritxan zelan jakitzen dogun? Ba kalia geratu eta oinguan legez galdetzen doskuzue-nian: "horrek gerrako berbak, nundik etara dozuez?" Horrek dira Ermuan zein Mallabixan batu doguzan gerrian gaineko lagun ugariren gogorapenak eta urtietako lanaren ondorixua.

Garbi

"Kristonak gerratien! Gizon banakie eruen gabaz de hil be bai. Elorrixoko kamiñun be hartu mutille ta hortxe Okara eruen eben; han atajue dao bai ta hantxe, jota behera gizona. Ha gorrixek garbittu eben. Bestiok be lekun-lekun hiltzen zittuezen. Markiñen be, jun gabin frankisten zerok, altxau andrie ohetik, erun ta jota ulie dana ebagi. Ta ulie ez bakarrik, olgauko eben segurua. Ulie dana motz-motz, jota ule zuri-zurixaz neskie gabin erunde. Eta zenbat holako! Andra askoi motzu otsien ulie".

Salbakondukuari esker

"Ez genkan ezebez, etxe azpiko taillarra kendu eiñ oskuen ta prezintau ta goardi zibil bi geunkazan gau guztixan. Anaiaxak, lehengusuak ta tiuak preso, ta gure aitxa eta ama ezin zian juan iñora bez, ez eken permisoriak Ermutik mobitzeko; neuk ba-



1937/03/16 - Ibañeta aldeko gudaria, gerrakopietako Mallabixako gudaria.

karrik nekan salbakonduktua eta ez zostan inporta ezebe-gaitxik. Akordatze jata jateko morduaz juan bihar nintzala kartzela batera ta bestera; estaziñuan kontrolak eitxen euazenak poltsara begitxu ta '¿cómo viven los presos!' ta nik kasurik pe. Bakizu? Bildurra, jakin bez zer dan! Kartzelan euazenen arduria gehixao zan beste danak baiño".

Ogi faltan

"Gosia be pasau genduan; jatekua be zenbat? Ni egu-nero juaten nintzan ogi billa aiuntamientura; familia bakotxari ogi zati bana emoten oskuen, segun eta etxian zenbat giñan. Batzutan, ahiztia ta bixok Berri-

zerañok juan bihar izaten giñan ogi billa; han gure tia batek dendia ekan eta ogixaz batera beste zeozertzuk ekarten genduzan etxe aldera".


Danian soldauak

"Elixia bedeinkaziñuak emoteko lekua baiño, al-mazen bat zan. Milizianuak elixako koruan emoten eben gaba eta mezia eleiz barruan ezin zanez emon, abade etxian emoten hasi ziran. Arrateko mendixetan euan frentietako bat ta Ermuan harako batalloi bi egon ziran; bata "Batallón Gordejuela" zan eta "Batallón Ibaizabal" bestia. Akorduan dakat honek egunero plazan euren kantuen zelan

kantatzen zitxuezen. Palaziuan, frentian euazenenda-ko jatekua prestatzen eben ta retaguardian euazen soldauak be bertan jate eben. Funikular bat ipiñi zan gero, Kalamuako frentian euaze-nei jatekua ta bihar eben guztixok igo ahal izateko".

Koltxoian txixa

"Beranotik urten ein bie-zan. Lau behi, da burdi bi, da koñatianak ume bi ta neuriek beste bi, lau ume. Da Artara, Beranotik Artara, Gollibarra. Artan topau genduan ganbariaz etxe bat hutsik; da han sukaldia ta bajauenazen, baiña lo? Ba garixa jota jauenan, bai, ta gari pilluan! Alaba nauxiña txikixa zonan, da txixa ein



PERSIANAS ORBE

- muntaia eta konponketa
- motorizazioa
- pertsiana dekoratiboak
- pertsiana bilgarriak
- segurtasun pertsianak
- moskitarak

Zearreko buelta, 2 • 943 17 66 34 • 630 01 13 41



LEIRE MAYORA PODOLOGOA

San Pelajo-8C, beheak
48260 Ermua
© 943 17 47 44

gari pilluan, koltxoian. Ta esaten jakunasen moruok edo trastiok, haretzek etorri zittunan ta bentanara, bentana txiki batera etara bihar ba koltxoia sikatzera. Ta jarri jakunazen holantzek; baña guk ez euela ezer, umiak txixa ein ebala. Ta etxe guztixoi aztertu jonen moruok. Gero emon jonan gaur lakoxe egun ganorabako bat, euri lanparran ta ezin urten moruok, abiorik ez zonan etortzen ta abioi barik ezin urten handik. Hiruarren egunien ero,

euzkixe urtetzen hasi zonan da orduntxe, ihes ein jonen”.

Tiropetik libre

“Bonbak batatziai itxi otsenien, orduen librau giñen tiropetik. Horrek alde ebenien harutz, frankismuok, orduen bildurrik barik ibiltzeko modun egon giñen. Baiña eurek hemen egon zin artin, horko tirue ta egur hotza! Kanpora urtetzen bagendun, berton hilko giñuezen”.

Kontrabanduan erosi

“Gure amak dendie ekan lbarrangelun. Gu yuten giñen kontrabandun. Esate oskuen honako lekura yun bihar de, gabaz, eongo dize-lako kandelak saltzeko guk dendan. Yuten garizen hara bille ta ekartzen geuzen; ama ta bixok yuten garizen ta ekartzen geuzen etzera ta gero etzin saltzen zin. Dendan gauza askorik eztan eoten saltzen, razionamien-tutik kanpora ez zan eoten. Razionamentura etorten zan jendik hartze eban berai to-

© Sabino Arana fundazioa



1937-03-21. Elgetako fronteko retaguardia. Ibaizabal barioitako Bategasunari

katen jakozenak ta harek badoiezen. Horretako be batzuk eukitze eben diru ta beste batzuk ez. Gure ahiz-tiek gordeta eukiko ditxu ondiñok gerra denporako gure aman dendako zorrak. Horrek eztao kobratzerik!”

Ardixe jan eziñik

“Bixamonin, frente bat edo etorren, soldauek etozen behintzet ta gosik etorri zin ta amak euken ipiñitte gaztaiek eitteko, ardixak jatzitte esnie, galdara haundi baten ta koillarok emon eutsezan ta dauen lekutik jan eben esnioi, gaztaiek eitteko preparaute eukeno. Baiña ondiñoik gose zin ta bueno, ba ardixe pagauko ebela ta ardi bat hiltzeko; hil ta zozor amak preparau ta jatie pentsau eben. Ardixoi pixetan bagaz hiltteko ta beste kontrarixuok edo ez takitt ba nik ze agertu zan, hori ezin neike esan ta ez toutsen emon jateko astik. Ardixoi, soltau hainkok ta átza larrá; hil aurretik urten bihera azartau jakuen. Bakoso-bakoso pasau zin gurin, ez eben ezer eiñ, bakoso jun zin”.

Maidier Totorika

Alazne Aiestar

Estibalitz González

Harategia



M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak

GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA
Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84

Ermua

OPTICA

J. CASADO



Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA

MIGUEL

Harategia



TXORIZOAK
ODOLOSTEAK


Probaleku, 3

☎ 17 05 63

ERMUA
(Bizkaia)

Hamburguesería

TITANIC



Kantabria 2
Tlf: 17 67 83

Imanol Olaizola:

"Frentien ez nekiyen beste aldetik anaixe bazetorren be"

Azpeitxiarra jaixotzez, ermuarra bihotzez. Gerriak urten ebanian, "El día" eta "Euzkadi" egunkari abertzalietako Azpeitxiko korrespontsala zan eta horretxegaitxik kartzelia ezagutu eban. Ordukuen barri eukitzeko egon gara berakin.


Imanol Olaizola Alegria 1912ko abenduaren 5ian jaixo zan. Antonino eta Mikaelak izandako 13 seme-alabetatik bera izan zan nagusiña. Zapaterua eban aitxa eta frontoietako korredore. Aitxanan moduko eskuetako ofizixorutz baiño estudixuetara jo eban; oin, pelotarako afiziñuori barru-barrurainok. Gaztetan pelotan eta foballian jokatzia zan beran entretenimendurik estimauena eta leitzia gero. Halantxek gogoratu be: "Gazte denporan bibliotekario egon nitzen Maristetan eta zinera jun biherrin, liburuá hartu eta etxea, etxin irakurtzera". Leitzia hainbeste gustatzen jako ze "tragau" eitzen ditzula liburuok.

Lagunekin kuadrillan ibiltzia eta kantuan ekitzia demasian gustatzen jakon, kalkan edo tabernetan, sasoi haretan eitzen zan modura. Dantza kontuetan, librian, ze "agarrauen etzala ein

bihar esaten ziyuben frailiak". Azpeitxiko Maristetan 2. mailako Batxillerra ikasi eban; ikasle ona ete zan galderiari, inportantzixia kenduaz erantzun berak: "Bai, zaindua, kargue hartutekue". Baiña bere suspenso bakarra goguan daka: "neki-xen hure buruz, danak bezela; baiña pasatzen zan katedratiku zanak bere liburu aterata zeuken ta hango erara nola esaten ez nun, fueral Gero setienbrin aprobau". Okerkerixak be, zelan ez; aldabak jo eta haren ostian ihes... barre artian dakarz akordura.

Sei kartzela ezagutakua

Eskolak amaitxu eta Azpeitxiko Notarixan hasi zan biharrian. Aitxa EAJ-PNVko kontzejala zan eta "Euzkadi" egunkariko korrespontsala. Haren arrimora hasi zan Imanol herriko notizixak batu eta argitaratzen bai 'Euzkadi' zein 'El día'



agerkarixetan, 'Kirol' eta 'Iturri-txiki' gatzizenekin.

23 urte besterik ez zitxuala, EAJ-ren Gipuzkuako diputauen zerrendan ordezkari modura jua zan. Prokuradore ikasten hasteko ustia ekala, gerriak urten eban: "Lehenengo egunin gerrik irten zunin, kalera, boluntario". 'Batalloi Loiolan' ibilli zan eta bere esanetan "tiro bat bota nunik ez naiz akordatzen. Ez nekiyen beste aldetik anaixe, nere ondorengo anaixe, soldautzie Afrikan tokau jakonari bazetorren be". Gerora jakin eban Afrikatik ez zala mobi-

du be ein. Gipuzkutik Bizkairalde ein bihar izan eben, kamiñoz-kamiño. Ondo goguan dakaz harek egunak: "Gu ihes einde geunden ta frentien hartu giñuezen prisionero. 1937xen, agostuen 26xen. Castro Urdialesen, kartzelarako habilitautako kolegixo baten egon giñen lehenengo; italianuk prisionero ein giñuzen. Handik ekarri giñuezen zerara, Bizkaire ta Pilarika bezperan Aranda de Duerora, campo de concentración zan Aranda eta. Hango gehixena euskaldunek giñen ta euskeraz gu berbetan ta zerak, hango

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA

EGANA

ALDAGAILUAK

CARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

ALBOKA

MUSIKA
ESKOLA

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

jendiek euskeraz aitu zuen "jestos son rusos!" "¡pero si no llevan cuernos!" esaten ziu. Ze proponganda einda zeuan, adarrak zeuzkebela gorrixe ta! Ai, aguantar y callar! Gero klasifikau ein giñuezen Arandan; 16 azpeitxiar geunden ta zortzi zertu giñuezen Burgosa, Prisión Central de Burgos. Gero handik Eskolapixota, Eskolapixutatik Larrinagako kartzelara ta hamendik S. Kristobala, Iruñako kartzelara. Azkenin handik erten nun, lizenziaute, 1940an".

Kondena murrizketia

Bere akusaziño karguak? Egunkari abertzalietako korrespontsala izatiana eta "los primeros días del alzamiento abandonó la Notaria". Kartzelaz kar-

tzelazko errosarixoz haren ostian, hiru urte betetzeko 12 egun geratzen jakozala, kalera: "Kondenie 12 urte ta egune firmaute neuzken, baiña rebisiyo batzuk egontzin ta jendie kartzeletatik atara ein behar zan, etzegon jenderik lanerako ta. Halaxe erten nun".

Aitxa euren 4 urtetan egon zan Puerto Sta. Marian kartzelerauta eta arrebiak be, 'Emakume Abertzaleen Batza'ko idazkarixa zana, 20 hillabete emon zitxuan giltzapian. Akorduan daka zelan "General Molak eman zun lege bat, dekretu bat Bizkaire alde eitzebenen famelixek, bialdu ein biher-tzibela ta halaxe nere ama, zortzi seme-alabakin espulsaute egon zan 'fuera de Guipúzcoa'. Baiña karlista baten andriek, gure amakin errukitxute, be-


ran gizonan aurrin belauniko jarrite, gure famelixe herrixen geratzie kontzegidu zun. Belauniko jarrite!".

Bizkaira gero

41ian etorri zan Ermura "S. Kristobaltik 40en erten ta noraezin ibilli" ostian. Sallabenteko Bitxori Mallabiabarrenakin ezkondu eta hiru seme-alaba izan zitxuezen: Imanol, Olatz eta Mikel. Kontu eta numeruetarako hain erreztasun haundixa eukitziak, Ermuratu eta segiduan biharra topatzeko lagungarri izan jakon. Ferreteri kontuetako bere negozi-xua atenditziak gain, 20 urtetan Batzoki-ko administraziñua bere kargu egon zan, zuzentasunez eta garbi, berari gustatzen jakon modura. Zintzotasuna da gehixen baloratzen daben gauzia eta horretan ahalegindu da beti. Anaitasuna Ikastola-ko sortzaileetako bat, Loiola Irratiko Ermuko errepresentante... bere uste apal-ian, merezi dabezen ekimenen alde beti. Apaltasun bardiñakin definitzen dau bere abertzaletasuna be: "Gure herrix maitatzie. Beste batzuk euren maitatzen duen bezela, guk geurie maitatu behar degu".

Bisitxan jua garen astelehen illun tze bixetan, liburu bera daka eskur-tian: José de Arteche azpeitxiarraren "Un hombre de paz". "Lehenengo to-mua amaitxute deuket ta oin bigarre-nakin dihardut; 600 orri inguru deuz-ke eta asko entretenitzen nau". Ger-ratiaren gaiñeko dokumental et-idatxiei ohitxuta badago be, argi da-ka gerriak zer kendu zotsan: "Gazte-rie, gazteriel!".

Estibalitz González



Gerra garaixan bizitxakuak batzen ditzuen papalak lortu ditxu Oiaizola familiariak

Harategia



M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak
GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA
Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

OPTICA J. CASADO



Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA

MIGUEL Harategia




TXORIZOAK
ODOLOSTEAK

Probaleku, 3
☎ 17 05 63
ERMUA
(Bizkaia)

Hamburguesería

TITANIC




Kantabria 2
Tlf: 17 67 83

Ignacio Olañeta, alaba Margaritaren ahotan

Zubiaurre kaliak Ignacio Olañeta izena izan eban 1979ko azarora arte. Gerra sasoian hil eben Ermuko alkate karlista honen alaba Margaritakin egon gara Eibarren, haren izaera eta herixotziaren gaiñeko oroitzapenak gogora ekartzen.

Sekula ez dozu jakitzen garbi pertsona baten barrua zelakua dan; ateratzen dozu esaten detsuenakin, pentsatzen dozunakin, entzutzen dozuzen berbengaitxik. Pertsona askori entzun detset aitzan gaiñian berbetan; dana ona entzun dot eta neri arpegira, aldrebes pentsatzen ba eben be, ez doste esan. Behin bakarrik gogoratzen dot entzun dotela gauza desagradabilia nere bizi guztian. Siñismen haundiko pertsonia zan gure aitxa. Oso fogosua esaten daben moduan, oso berua; izan zan gizon bat bera egin zana, autodidakta bat. Ondo zekixan berbetan ta memori-xia haundixa ekan; asko irakurtze eban eta biblioteca nahiko haundixa euan



Madrilen, 1935ian, Lerroxx errepublikako gobernu buruarekin Zona Armera Batzordeko alkateak. Ezkerrean, Ignacio Olañeta.


gurian. Bere idealak bizi izan zitxuan gizona izan zan. Zer pasauko zan?"

Billa ebizela

"Aitxari pelotia asko gustatzen jakon eta Santixauetan Mallabira jua ei zan lagunekin pelotan jolastera eta bateron batzuk aitzan billa zebizen detenitzeko. Mallabira jua jakozen abisua emotera: 'Hi, lñazio, hire billa dabizak eta martxa eiñik edo ezkutau hari'. Etxera etorri jakozen beste batzuk esatera: 'Martxa eiñik, Arabaraiño eruango juagu menditxik. Gauzia gaizki daok ta hire billa dabizak'. Eta berak esan ei ebala: 'Zer eingo justek niri? Nik etxuat kalte iñori eiñ eta'. 32 urteko mutil batek zenbat kalte einda euki leikian ba?"

Tramite bat zalakotan

"Zezen egunian aitxa detenitzera etorri zian. Geuazen hantxe, beheko sukal-dian danok eta gogoratzen naiz gaiñera gengozala jende pillua, ondiñok Santi-xauak eta jaleua eta udia eta sartu zian gizon batzuk eta detenidu bihar ebela. Tio Nikolas zan aman osaba bat ta bati esan zetsan: 'Baloria dakak familixakua izan ixa-ixa eta...' Harek, oster: 'Ez, tramite bat dok, tramite bat. Hartu, eruango juagu eta laster etxian egon-gok'. Amamak plazara etara ninduan. Eibarren egun batzuk ein zitxuan Aiun-tamietuan deteniduta eta gero Donos-tiako Kursaaen euki eben preso. Iraila-ren 3an, goixaldera, lehelengo barixa-



ARTARRAI
OPARI DENDA



Goienkale, 5 • Telf. 943 17 44 19
ERMUA



Zubiaurre kafea, 23 beheia

kua zan hillekua eta etara eben Elgeta-ko kamiñura. Han fusilau eben. Esan etsela: 'Begitxu han zein datorren!' bueltia emon ebala eta atzetik fusilau eben. Bertan, bide baztarrian laga eben.

Gaztaiña sasoia, irailla zan eta basarritxar batzuk pasau zian handik; andria mallabixarra zan eta ikusi ebanian esan ebala: 'aiña, Ermuko alkatia'. Ezagutu ebala, baiña ez zian atrebidu esaten hilda euala; zuluia eñi eta bertan enterrau eben. Zeiñek esan? Igual eurok hitgo zitxuen hori esateran edo kulpia bota. Ama egon zan ixa-ixa 3 urte zain: 'Iñazio bizi badon, agertukon, agertukon, agertukon!'. Halako baten, hirugarren urtia betetzera zoiala, bere Eibarko lagun bati esan otsen 'guk enterrau genduan halako lekuan eta neretako Olañeta zan'. Juan zian bere dentistia, neurriak eta ahuana hartzeko, medikua eta jueza. Poltsikuan ekan karteria eta erropiagaitzik ezagutu eben. Entierua ein jakon ta orduan tragau eban amak alargun euala.

Amak ez zeskun laga gorrotuan bizi izaten; bera be fede haundiko andria zan. 'Parkatu, beti parkatu. Ein des-

kuen miña ezin deskue kendu eta hau miñau guretake da bakarrik'. Nik ez detset botatzen kulpia ha tirua bota ebe-nei, haren buruak berotzen ditzuezenei baiña".

Umiaren ixilleko penia

"Gauza batzuk dakidaz irakurritxa edo neuk aztertuta. Frankismo garaia zan eta gure aitxan moduan hildakuak heroe nazionalak zian; egixa esan, neretako kanallada bat izan zan. Uztaillan detenidu eta iraillian juizio barik hiltzia... Delitu asko euki bihar, holan hartu eta garbitzeko pertsona bat. 10-11 urtekin, horrek gauzok burura etortzen jatsuzenian, pentsatzen hasten zara: 'Hain txarra ete zan nire aitxa?' Ha bai sufrimendua ume batentzat, ipuiñetan hiltzen ebezenak gaiztuak zian eta!".

Lehendakarixak zoriondu

"Ezkondutua giñanian juan giñazen Parisera biñe nobiosen eta Josemarin amak ekan lehengosu bat Euzkadiko delegaziñuan lanian. Josemariri emon etsen enkargu bat hari eruateko eta han gaozala esan oskun: 'Nahi dozu Jose Antonio Agirre Lehendakaria salutatia?' Ta 'Bueno...' esan netsan. Neretako zan... ba nire mundu karlistatik urten eta Jose Antonio Agirrekin tope eixia... dardaria be emoten zestan orduan momentuan, ze zan txoke haundi bat. Zuek ez dozue hori bizi izan, baiña zan txoke haundiko bizimodua: zu halakua zara, zu halakua, banduak einda, bakotxak beria, bere pentsamenduak... Presentau ninduan Ignacio Olañetaren alaba moduan eta esan zestan: 'Zorionak euki zenduan aitxagaitzik, ze gizona izan zan! Ze gizon zuzena! Idea desberdiñak geunkazen, baiña balixoko gizona izan zan'. Azkenian etsai haundi bat ez bada eta krimen haundi bat ez badau ein pertsoniak, bakotxak bere idealak eukitzia libre daka, ezta? Horretara nik uste dot ez gaozala formatuta, ez gaoz einda onartzeko bestien pentsamenduak, bestiak beste konzeptu baten ikusi leikezela gauzak".



Sufrimendua, gelditzen diazenendako

"Artikulu bat etorri zan oin urtiak 'Deia' egunkarixan esanez iñork ez dabena esan dala Estellako Estatutuaren botaziñua ein zanian 1931an, tribunan Estellako alkatia eta Ermuko alkatia, Ignacio Olañeta euazela. Harek ikurriña zabaltzeran, gure aitxak lagundu etsala; horretxek be beran zabaltasuna erakusten dau. Zoritarrez bata bando batekuak eta bestia beste bando batekuak, bixak hil zitxuen 36xan. Aitxak euskeraz eitxen zestan oroimena dakat eta neretako inportantia da nere hizkuntza, aberria, ohiturak, arbasuak. Hori denfendidu ein bihar dot eta hori aitxak erakutsi zestan. Konklusiña etara dotena da hiltzen dozun pertsoniak ez dozula bengantzia bat betetzen, bengantzia dala gelditzen danandako, haretxendako dala zigorra, penak eta danak. Hilda dauenak ez dau sufritzen; horregaitzik alperrikua izaten da bere herixotzia. Horixe geratu deiala garbi: ez dala hiltzen pertsonia, hiltzen dala gelditzen diazenak".

Estibalitz González
Alazne Aiestaran



OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia TE eta INFUSIOETAN
- Tarta bereziak

• Astelehenetik ostiralera 9etan

943172665



ERMUA

Zubiaurre 20

Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona

1937ko apiril baltza

Kalamua eta Intxortako frentiak apurtuta, nazionalak Gernikara bidian Ermutik eta Mallabitxik pasau ziraneko lorrotza, jendiaren akorduan segitzen dau gaur egun be.

Elgetatik nazionalak

"Marzuan nazionalak Durango bonbardiau eben. Bil-dur itzela pasau genduan orduan, zer pasauko zan ez genkixan eta. Elgeta aldetik nazionalak etozen eta abioak, barritz...

Akabo! Haren zaratia entzuten gendunian, anai-arreba guztixok refugixuan ezkuta giñan ta aitxa ta amak, mendi aldera jotzen eben. Gabian, gudarixak etorri jakuzan etxetik urteteko konbixia eitxen, nazionalak Ermura sartzekotan ziala ta. 25ian, gu Mallabirutz ta 26xan, Ermua hartu eben. Bilborako bidia itxeko asmuakin, Elgetakua itxi eben. Gudarixak Markiñako bidetik Gernika aldera abixatzen hasi ziran. Baiña ha eguna ez zan egunik aproposena izan Gernikara juateko, bonbardiau eiñ ebelako. Orduan egunian moruak Oiz aldera zoiazan, han euan frentian

burrukan eitxera. Hurrengo egunian, 27xan bueltau giñan Ermura. Gure etxia dana apurtuta euan, baiña altxau genduan eta aurrera!"

Te bedarra hartute

"Harek moruok pasau zianien, aprille be aurrera jungaldu zan. Gurien euen hor ortu kontrara teie. Zer izaten da hori mentie edo, zozer kafie edo eitteko? Ba danok batute eruen zittuen. Usain gozue deuke, hori sikatu eitten ei dabe ta gero mantzanillian moduen hartu. Bai... astixe emon baotsen hartzeko!"

Etxia dana apurtuta

"Aprillaren 25a izango zan, 26xan izan zan eta Ermuan sartu ziranian. Neu txikixa eta beste batek hartu ninduen lepuan eta Urkixatik eta hortik bueltia emon genduan. Goiazela moruak ikusi genduzan pasatzen hortik karreteratik, txilaba zurixekin eta. Bateron batek esan etsen: 'kontuz ibilli zaitxie, ez bajau karreterara, ze horrek neska gaztiok hartu eitxen ditzuez'. Sustauta, ezkutuan-ezkutuan, heldu giñazen basarrira barriro. Bixamonian, Ermua librau za-



Ibaizabal Batalloia entrenamentuetan Ermuko mendi inguruetan. ©Sabino Arana Fundazioa.

nian, amak hartu bartulo guztiak eta etxera. Eta gogoratzen naiz zeuala etxia... bueno ez zeuan ezer, dana kenduta, ezta? Baiña ensaladera bat, amamaren ezkontzako ensaladera eder bat, erdixan gauza biribil batekin zeuan eta azpizan beste bandeda, nik hortxe gordeta daketena amaman arriokua be bai. Amak jua baiña lehena-go Iturbe ideltseruari deitxu zetsan: 'Iturbe nerekin sartu etxera, zuritxu bat emotera eta garbitasun bat emotera'. Ni jua nintzan ha hartzera; zan bonba de mano bat, granada bat. 'Kontuz, kontuz!' esan zetan Iturbek. 'Ai, bai-

ña politxa da' esan netsala nik. Baiña hantxe ipinitxa itxuria, bera bakarrik. Beste dana apurtuta, bai ba gure etxia kuartel modura erabilli zan eta".

Gorputza zaztiaute

"Aprillan 22ixen bota eben bonbie hamen, Amestiko solun, abiotik ta Amestiko gizonai jota besue apurtu! Nik eztait bizik zelan urten eban. Gorputze dana zaztiaute ta morroie bertan ta hari ezebez; hari eztoutsen ezebez ein. Domekan gero hamengo bonbardie! Lehelengo kañoiek hasi zien Oiza. Kañoiek itxitzenien, bestiok,



KIROL MEDIKUNTZA


**ERA GUZTIETAKO MUTUA
ETA ASEGURUEKIN
KONTZERTATUA**

ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- FISIOTERAPIA
- 3. ADINEKO MANTENIMENDUA
- ESFORTZU PROBAK
- KONTSULTA ETA ERREKONOTZIMENDU MEDIKOAK

- ODOL ATERATZE ZENTROA, EGUN BEREAN ERANTZUNA JASOZ
- MASAJE TERAPEUTIKOA - KIROL MASAJEAK
- URGENTZIAK

Diputazio Etorbidea 8-10 48 260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16
Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskalnet.net



ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA

EGAÑA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR



MUSIKA
ESKOLA

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

abioiok. Oiztik sartzen zin; jota Munttibar baiño harutza, sue. Horko zaparrarie, horko tirue ta bonbardie! Milleka persona hil zittuezen Gerniken. Negargarrie!”.

Mendiz-mendikua mapekin

“Frentiori apurtu zanian, nazionalok Kalamuatik bajau ziran Markiñara eta hametik jo eben Mallamendira. Mallamenditxik Zaldibarrera. Eitzatik pasau ziran Uretara, handik hartu eben Mallamendira eta Mallamenditxik aurrera. Ez ziran sartu Ermuan, aldamenetatik juan ziran. Abioitxik danak hartuta ekezen, mapa guztiak einda, zelan ibilli ta zelan eiñ. Dana, eh? Hori 27xa zan. Guk gero soldauen llegadia ikusi genduan. Gu gengozen Tra-

bakuan ta Trabaku etxetik gora, banan-banan igo eben, Oizko puntara. Preguntau ostien ia dirurik bagenduan ta nik Euzkadiko dirua etara notsen poltsikotik. ‘Bah, esto no vale para nada!’ ta harrika bota zostien. Ordu betian egongo ziran hantxe Trabakuko etxian, kanpuan jarritxa eta Markiñarutz joiezen handitxik. Gero moruak etorri ziran ta asko. Baltzak ziran, euren txila biakin, holako soiñeko haundi bat burutik sartzen zana eta besuak libre”.

Alemanen aspa ikusten

“Gu Gerniketik hurran eixen giñen. Gerniketik etorri zien sei abioi, brum! brum! Han euazen batzuk esaten eben: ‘Hori dakarre, heguen

azpizen aspie dakarre, alemanen, nazien zerori’. ‘Ene, alemanak diz, alemanak diz!’ esaten gendun geuk be harei entzunde. Heguen azpizen ekartze eben hori euren kurutziori. ‘Hor datoz, hor datoz ta ez mobidu, geldik egon’. Persona nagusixek erakusten oskuen zer ein bihar zan, geldi-geldik egon abiotik zeozar mobitzen zala ikusi ezker bonbie haretxi bota be iguel”.

Goiz eberdi bueltan bonbardeuek


“Bonben zaratie entzuten gendunien, Kaleruen sartzen gintzezen danok, antxiñe karie eitteko erabiltze eben zulo horretan. Gurien, amak emonda, aittek ipiñi eban teillatuen izera zurixe en plan de paz. Goiz eberdi bueltan eitte eben bonbardeue eta Gernika ein zanian be ‘ene, hurran eitten da ba!’ esaten eben eta guretik entzun eitten zan”.

Ermuko liberaziñua

“20an ekin otsen abioiak, esaten jakon aviones espías, frentiak ikustera ta etortzen ziran bastante bajuan. Preparata ekezen Bergarara sartzen tankiok, ejerzituok ta azkenengo zera emoteko. 22an emon eben lehenengo

atake txiki bat; kontrarrestau otsen, hamentxe euan Bataillon batek, fuerzas de choque zirana, ‘Batallon Ibaizabal’ zana. Haretxek igo eben gora eta eutsi eiñ otsen. Baiña emon ebenian bigarren eta hirugarren atakia, abiaziañuakin eta gero tankiekin, ez zan egon beste erremedixurik martxa eixia baiño. ‘Bada-tozela ta martxa ein bijuau, hona edo hara. 25ian urten genduan goixeko bostetan edo seiretan zerera, zelan esaten jako Trabaku ondora. Eta jun gintzazen ama ume guztiakin. Aitxak 25ian urte eban harek oiñazian, bakarrik ta bialdu ninduan Ermura kamio baten billa. Etorri nintzan Hanbre ondorainok ta fiiiñi! Txistua jotzen entzun neban. ‘Chaval, ¿a dónde vas?’ ‘En busca de un automovil para escapar’. ‘Mira, vete otra vez a casa. ¿No oyes eso? Esos tiros son ahí mismo’. Intxortatik bajatzen euazen eta etorri ziran harek 26xan. Egun horretan Ermua liberau ebela esaten eben gero, ze herri baten sartzen ziran nazionalak esaten eben: ‘Hemos liberado tal ciudad de la horda roja’ eta gu zelan gintzazen de la horda roja ba...”

Estibalitz González
Maider Totorika



Aprillaren 26xan Ureta basarritxik alde egin ostian. Pelikulen No-doeñan luzeruan jardun eben erakusten erretratu hau.

Harategia



M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak

GEUK GIZENDUTAKO

ABELTZANTZA

Merkatua, 36-37 zbk.k

Tfnoa. 943 17 05 84

Ermua

OPTICA

J. CASADO



Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA

MIGUEL

Harategia



TXORIZOAK
ODOLOSTEAK

Probaleku, 3


☎ 17 05 63

ERMUA

(Bizkaia)

hamburguesería

TITANIK



Pintxo dastaketa
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83



Edurne Ostolaza: Gerrak nire bizitza goitik behera aldatu zuen”

Ermuar honek Espainiako Gerra Zibilaren ondorioak gertutik bizi izan ditu, nahiz eta orduan bi urte t’erdi bakarrik zituen. Alita, ama eta ahizpa Munitibarreko bonbardaketan hil ziren. Edurne bizirik atera zen baina gerrak utzitako arrastoek bere bizitza erabat markatu zuten.

-Aurten 70 urte bete dira Espainiako gerra zibila hasi zela, oso txikia zinen baina lehenengo pertsonan bizi izan zenuen.

Niri kontatu didatena dakit nik. 1937ko apirilko 26an, Ermuko liberazio eguna zen egunean, aitak eta amak Ermutik alde egitea pentsatu zuten, itsasontzia hartu eta Frantzia aldera. Munitibarrera heldu ginenean, hegazkinak bonbak botatzen hasi ziren. Orduan aita, ama, ahizpa eta laurok, zubi azpian sartu ginen bonbetatik babesteko eta gurekin batera beste hainbat pertsona izan ziren han, baina oso gutxi atera ginen bizirik, ni, emakume bat eta beste Zaidibarko gizon bat. Nire aita, ama eta ahizpa bertan hil ziren. Gaur egun oraindik ez dut ulertzen aitak zergatik erabaki zuen dena utzi eta alde egitea.

-Zer dakizu zure guraso eta ahizpari buruz?

Aita, Jose Mari Ostolaza Arrasate aldekoa zen baina Gerian bizi izan zen ezkondu arte. Arotza zen eta oso aursarta negoziotarako. Ama Geriakoa zen eta ezkondu zirenean zeharkaleko autobus geltokia ondoan dagoen etxera etorri ziren bizitzera. Etxea berak egindakoa da, etxearen kontran aroztegia eta zerratokia egin zuten, hortik datorkio "Arotzaneakoa" izena. Julene ahizpak 15



Edurne, bere aitak eraikitako "Arotzaneakoa" etxe azpian.

hilabete zituen hil zutenean.

**-Bonbardaketa ostean, zauritutako emakumeak hartu zintuen eta ospitale-
ra eraman zintuen.**

Bonbardaketa geratu zenean, emakume hark hartu ninduen eta furgonetan pasa zen mutil batekin ospitalera eraman gintuzten. Emakumea eta biok zaurituta geunden eta. Lehenengo Lekeitiora joan ginen baina nire zauriak handiegiak zire-

nez, Gernikara eraman ninduten eta Gernikara heldu zirenean eta hango sarraskia ikusi zutenean, Bilboko ospital batera joan ginen.

-Zauri handiak zenituela esan duzu...

Bai. Nik zauri handiena aurpegian eta ahoan neukan. Metraila aurpegiaren alde batetik sartu, ahotik pasatu eta besora arte sartu zitzaidan. Bilboko ospitalean bizi irauteko operazioa egin zidaten.

-Zure aitita eta bere suhia ume bat bizirik geratu zela enteratu zirenean, zure bila hasi ziren.

Bai, baina imaginatzen dut oso gogorra izango zela

eurentzat, orduan ez zegoen gaur egungo komunikaziorik. Ez naiz gogoratzen baina askotan pentsatzen dut hobe dela ez oroitzea. Hilabete bila pasa eta gero, amamak eta lehengusina batek topatu ninduten Bilboko ospitalean.

-Nola ezagutu zintuzten?

Ospitaleko monjak erakutsi zieten kamiseta batengatik eta bekokian daukadan marka bategatik.

-Ospitalean hilabete pasatxo egon ondoren erreku-perazioa ez zen izango samurra?

Kontatu didatenez, harri bati negarra eragiteko moduan nengoen. Horrenbeste

**"Ez naiz gerrarekin
gogoratzen eta askotan hobe
ez oroitzea"**

ILEAPAINDEGIA
Izaskun
Goienkale, 9 (Plaza San Martín)
48260 Emsua Bizkaia
Tel. 943.17.66.90
ILEAPAINDEGIA

Solozabal
estankoa

torrekua z/g
Tel/Faxa. 943.17.07.33
fax publikoa

PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

denbora ohean egonda, ibiltzen ahaztu zitzaidan, argaldu egin nintzen, aurpegian zauri handia nuen... Bizirik atera nintzen, orduan ez zegoen psikologorik eta aurrera egin nuen.

-Bonbardaketa ostean hartu zintuen emakume hura gehiago ikusi zenuen?

Bai, 8 urte nituen eta Ziortzara joan ginen oinez tio eta biok astoarekin, eta han ikusi nuen lehenengoz bonbardaketa ostean. Emakumea gaixotu egin zen, halako krisi antzerako bat eduki zuen ni ikustean.

-Umezurtz geratu zinen

eta nola konpondu zen zure egoera?

Ermuan familia-kontseilua sortu zen, nolabaiteko babesa emateko, edozer gauzatarako sinadura behar zelako eta kontseilu horrek funtzio hori betetzen zuen. Bestalde, aitita tutore legala zen eta haren ordezkoa tio.

-Baserrian noiz arte egon zinen?

Han 12 urtera arte egon nintzen gutxi gora behera. Gero tia Angelak Ermuan denda jarri zuen eta han aritu nintzen, josten ere egin nuen, umezain, tabernan, baserriko lanetan... Nahiago

"Bigarren operazioa Franco hil zen egunean egin nuen"

izaten nuen eskolara joan baserrian geratu baino.

-Gerrak utzitako zauriak direla eta, hainbat operazio egin zenituen gero aurpegian ezta?

Bai, lehenengoa 19 urterekin egin nuen Donostian eta beste biak ezkondu eta gero. Gainera bigarren operazio egunean Franco hil zen eta gogoratzen dut, anestesiatik esnatzen nengoela tiak albotik esaten zidala: "Eduene, Eduene esnatu zaitez, hori egin dizuna hil egin da eta". Hirugarren operazioa geroago egin nuen.

-Gerrak utzitako arrasto psikologiko eta fisikoak izango zuten eragina zure bizitzan?

Bai eta nik uste dut txikitant baino gehiago, nagusitu nintzenean eragin gehiago izan zutela. Gerrak utzitako zauri fisikoak umetan eta batez ere gaztetan konplexu handiak sortu zizkidan. Gurasoen eta ahizparen hutsunea beti sentitzen da, ez zaizu inoiz ahazten. Gerrak erabat aldatu zuen nire bizimodua eta betirako markatu ninduen.

-Baserrian etxeok nola bizi zuten hau guztia?

Aitita eta amamak ez zuten horri buruz hitz egiten, asko sufritu zuten eta nahiago zuten horren gainean ez hitz egiterik, horregatik nire aurrean ez zuten aitatu ere egi-

ten. Aititak esaten zuenez, etxeok hil zirela jakitzea oso gogorra izan zen, baina ondoren etorri zena, ez zen samurragoa izan. Izugarriko nahastea izan zen, gauza asko eta asko konpondu behar izan zituztelako.

-Gaur egun dirulaguntza jasotzen duzu gerraren biktima gisa?

Franco hil eta gero gerrako-elbarri moduan dirulaguntza jasotzen hasi nintzen. Aurten, umezurtz geratzeagatik hasi naiz beste dirulaguntza bat jasotzen, alargun geratu eta gero.

-Zure seme-alabekin hitz egiten duzu horren gainean?

Inoiz ez didate larregi galdetu, nagusitu ahala naturaltasun handiagoz irtetzen dira gauzak eta gaur egun eurak langundu dizkirate dirulaguntzen tramitazioak egiten. Lehengoan alabak esan zidan 6 urteko bilobak galdetu ziola ea zer gertatu zitzaidan aurpegian.

-Aurten gerraren 70. urteurrena dela eta, komunikabideetan askotan agertzen ari da gaia, testigantzak jasotzen dituzte...

Bai eta nik interesarekin jarraitzen ditut, egunkarietan irakurri, irrastian entzun... Nik ez dut gogoratzen baina gerrak utzitako arrastoak ez dit ahazten uzten ordukoa.

Alazne Aiestaran



Hiru operazio egin behar izan ditu Edurnek.

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

komunitateak
aseguruak
San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

DROGETENITTURRI
EUSKAL BIRUSA

943 17 93 50
Elexoste

